

**FAMILIA, EBANJELIZAZINOAREN ERAGILE:**  
**ELIZBARRUTIKO PROPOSAMENA OSOKO PASTORALTZARAKO**

**AURKIBIDEA**

**1. SARRERA**

**2. FAMILIA EBANJELIZAZINOAREN ERAGILE OSOKO PASTORALTZAN**

**2.1. AURKEZPENA**

**2.2. OINARRIZKO ERREFERENTZIAK**

**3. PASTORAL EREMUEN AZTERKETA**

**3.1. EBANJELIZAZINO ETA KATEKESIA**

**3.2. LITURGIA**

**3.3. KARIDADE ETA ZUZENTASUNA**

**3.4. ONDORIOAK**

**4. JARDUNBIDEAK OSOKO PASTORALTZARAKO**

## 1. SARRERA

Eleizbarrutian, Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko V. Egitasmoaren lehen aldian egin izan dan bereizketa-prozesuagaz batera, familiari eskainitako Sinodo biak ospatu izan dira eta dalako prozesu haretan familia lehenetsi da argi eta garbi ebanjelizazioaren eragile lez eta ez jasotzaile lez bakarrik. Horren eraginez, ezinbestekoa da osoko pastoraltzaren –eta ez bakarrik familia pastoraltzaren- hausnarketa barria, barritzea eta sendotzea. Oraintsu atera da Frantzisko Aita Santuaren *Amoris laetitia* Aholku-hitza ere, familiak ebanjelizatzean dauan zeregina indartzeko.

Lehen begiratuan, bat eginda landu behar doguzan kontuak antzematen dira. Praktikan ikusi daitekena zera da: ebanjelizazioa, batez be, iragarpenari lotuta ulertzen dala, benetan era askotako osagaiak baditu be, nahiz eta lehen iragarpena giltzarria izan. Karidade eta zuzentasunaren aldeko konpromisoa, bakarkako eta alkarteko otoitza, sakramentu-bizitza eta alkartean txertatzea be ebanjelizazioaren osagarriak dira. Horregaitik, ezinbestekoa da baterako erantzuna buztartzea, osoko pastoraltzaren ikuspuntutik. Horretan datza orain aurkezten danaren giltza. Kasu batzuetan, ekimen barriak martxan jarriko dira, baina barritasunik esanguratsuena, ikuspuntu barria hartzea da, integralagoa, egiten diharduguna berrezarri eta aldatuko dauana.

Karidade eta Zuzentasunerako, Liturgiarako eta Ebanjelizazio eta Katekesirako Ordezkaritzek batera hausnartu eta prestatu dabe orain aurkezten dan agiri hau, pastoralgintza eleizbarruti osoan bultzatzeko. Alde batetik, sailen bitartez egiten dan banaketa zorrotza gaindituz, osoko pastoraltza suspertzeko eta, bestetik, bikaritzza eta pastoral barrutiei laguntasun eraginkorragoa eskaintzeko egiten ari dan Kuria Pastoralaren erabarritze prozesuaren barruan dago ekimen hau. Misinoa bada Eleizaren bizitza zehazten dauana, egindako bereizketak bitarteko pastoralen birmoldaketa eta barritzatzea eskatzen dau.

Honako agiri hau hiru ataletan banatzen da. Lehenengoan, abiapuntuaren esangura eta oinarria argitu gura da: familia ebanjelizazioaren eragile. Bigarreanean, baterako azterketaren ondoren, ondorio batzuk jasoten dira. Azkenik, hirugarreanean, jardunbide batzuk proposatzen dira osoko pastoraltzarako.

## 2. FAMILIA EBANJELIZAZINOAREN ERAGILE OSOKO PASTORALTZAN

### 2.1. AURKEZPENEA

FAMILIA EBANJELIZAZINOAREN ERAGILE proposamena, osoko pastoraltzarantz joteko saiakera da; familia ardaztat hartuta, bera litzateke, aldi berean, pastoral jardueraren hartzaile eta ardurakide. Horrek zera esan gura dau:

- Familia dago pastoralgintzaren bihotzean.
- Familia, kideak ebanjelizatzen dituan eta bere inguruan ebanjelizatzaile dan *etxeko Eleizatza* jotzen da.
- Familia, oinarrizko gizarte errealidade lez autortzen da: osotzen dabenen hezitzaile, personen, herritar ekintzaile eta arduratsuen prestatzaile, ukatu ezin daiken gizarte alderdiaren jabe, hezkuntza, kultura, lanbide edo politika arloan Jaungoikoaren Erreinua agertzeraz emoten saiatzen dan gizarte eraldaketaren eragile.
- Akonpainamentua nahitaezkoa da, familiako kide bakoitza bere fede esperientziaz jaubetu daiten eta dalako esperientzia horretan hazi daiten, alkarren artean lotutako aldi batzuk dituan ibilpideari jarraituz.
- Bihotz-barritzea eta konpromiso, iragarpen, ospakizun eta alkarrearen eraketa alderdietan Eleizan txertatzea dakarren Jesukristogaz bat egitea ahalbideratzea da helburua.

Proposamen honek familiaren kristau bizitzaren gauzatzerako eremuen trataera bateratua eskatzen dau eta hori ahalbideratzen daben oinarrizko hiru pastoral eragileak artikulatzen ditu:

- a. **Eskola katolikuak**, beren-beregi jagokon eginkizuna dau: fedearen eta kulturaren arteko hartu-emonan ahalbideratu eta esnatze erlijiosoaren hastapenetan eta inguruarekin konprometitutako persona solidarioen sorreran lagundu. Era berean, fedea sakontzeko eta elizaratzeko aukerak ere eskeintzen ditu.
- b. Erreferentziazko kristau **parrokia-alkartearen** ezinbesteko bokazinoa, beti nahikoa ez bada be, familiari bizitza osoan zehar laguntzea da, bere zerbitzu guztiak (katekesia, liturgia, gizarte-karidadea) eskainiz.
- c. Ezkontzan oinarritzen dan **familiak** bizi eta maitasunezko alkartearen izan behar dau, etxeko Eleiza; domekako eukaristia-alkarteari lotuta egongo da eta Eleizak munduan dauan misinoan esku-hartuko dau.



## 2.2. OINARRIZKO ERREFERENTZIAK

Erreferentzien metaketa egiteko asmo barik, benetan esanguratsuak diran batzuk aitatuko doguz:

- 1- *Evangelii nuntiandi* Aholku-hitz apostolikoan adierazoten denez, *ebanjelizazioa era askotako osagaiak dituan urrats korapilatsua da: gizadiaren barrikuntza, lekukotasuna, iragarpen argia, bihotzaren atxikimendua, alkartean sartzeta, zeinuak nork bere egitea, apostolutza-ekimenak*<sup>1</sup>.
- 2- *Familiaris consortio* Aholku-hitz apostolikoak dei egiten deutso familiari *partaide bizi eta arduratsu izan daiten Eleizaren misinoan, beren-beregi jagokon eran, originaltasunez, hau da, bizi eta maitasunezko alkarte lez jagokon izatea eta egitea Eleizaren eta gizartearen esanetara jarritz*<sup>2</sup>.
- 3- 2015ean ospatutako Familiaren Sinodoan be nabarmendu izan da familia pastoralaren eragilea dala eta familia esperientziaren eta kristau sarbidearen arteko loturaren garrantzia azpimarratu da<sup>3</sup>.
- 4- Sinodoaren osteko *Amoris Laetitia* Aholku-hitz apostolikoan jasoten denez, *Eliza familien familia da, etxeko eliza guztiek etengabe aberastua*<sup>4</sup>. Eta aurreratoxago zehazten denez,

<sup>1</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* 24.

<sup>2</sup> S. Joan Paulo II.a, *Familiaris consortio* Aholku-hitz apostolikoa, 50.

<sup>3</sup> *Relatio synodalis* 89-90.

<sup>4</sup> Frantzisko, *Amoris laetitia* Sindo osteko Aholku-hitz Apostolikoa, 87.

parrokia ere *familien familia da, eliz alkarte txikien eta mugimenduen ekarpenak bertan bat egiten dabela*<sup>5</sup>

- 5- Dokumentu berean beste hau ere esaten da: *familiak ez dau bere burua barrutizat hartu behar (...) bere baitatik ateraten da bilaketa solidarioan, gizon-emakumeari gizarteratzeko bidea eta publiko eta pribatuaren arteko lotunea eskainiz. Hori dala-eta, senar-emazteek euren gizarte betebeharez argi eta garbi jaubetu behar dabela gogoratzen dau*<sup>6</sup>.
- 6- KSDak, gizarte eta eleiz testuinguruaz jardutean, hamarkada batzuetan nabarmen aldatu dala eta horrek familian eragin handia izan dauala egiaztatzen dau. Hori dala-eta, kristinau alkarteak aurkeztutako erronkei emon beharreko erantzunak be desbardina izan beharko dau<sup>7</sup>. KSDan bertan, familiak federako sarbidean dauan funtsezko egitekoa nabarmentzen da. Aitak eta amak nahitaez parte hartzen dabe prozesu horretan eta dei egiten jake, seme-alaben fedearen sarbideari lotuta, euren fedea be suspertu daien<sup>8</sup>. Familiak parrokiagaz eta hezkuntza alkarteagaz koordinatuta jardutea be garrantzitsua dala esaten da eta eskolari berariazko lekua jagokola Kristau Sarbidean (KS), ikasleen sarbidean eta baita aita eta amen sarbidean be<sup>9</sup>.
- 7- V. EEEaren haritik eleizbarrutian garatu izan dan bereizketa-prozesuak *familia ebanjelizazioaren eragiletzat hartzea* lehenetsi dau<sup>10</sup>. Proposamen honen barritasuna familia bere osotasunean hartzean datza, hau da, ez pastoral jardueraren hartzaile lez bakarrik, ebanjelizazioaren eragile lez baino, honen elementu edo alderdi anitzetan.

### 3. PASTORAL EREMUEN AZTERKETA

Pastoral errealidadearen osagai batzuk aurkeztuko dira ondoren; abiapuntutzat hartuta, gitxienez alderdi batzuetan barritua dan proposamena bultzatzea eragin dabe. Gauzak orokortzeak zehaztasun garrantzitsuak ahaztea ekarri daikela kontuan hartuta, ondorengo ezaugarriak pastoral errealidadearen hainbat eremutan azaltzen dira.

#### 3.1. EBANJELIZAZINOA ETA KATEKESIA

##### Abiapuntua

- **Kristau Sarbideko prozesua deskonektatutako aldiakaz**

Gure eleizbarrutiko hainbat pastoral errealidadetan garatzen ari diran ISko prozesuak personak bizi dauan aldiari (umeak, gaztetxoak, nerabeak edo gazteak) lotutako etapetan sailkatuta eta euren artean bananduta dagoz. Ikuspuntua ez da, beraz, prozesu bakarrarena, izan be, personaren adin edo inguruabarren arabera, aldi jakin batzuetan zehazten bada be, honeek ibilpideko une bat baino ez diralako. Prozesuaren zatiketak ondorio garrantzitsu bi ditu:

- Personak askotan ez dira azkeneraino heltzen, KSa bertan behera itzi eta ez dabe burutzen.

---

<sup>5</sup> Ibid. 202.

<sup>6</sup> Ibid. 181.

<sup>7</sup> Ik KSD 5-8.

<sup>8</sup> Ik KSD 33.

<sup>9</sup> Ik KSD 39-40.

<sup>10</sup> Gotzaina eta Gotzain Kontseilua, V. EEEaren testuingurua.

- Umeen, gaztetxoan, nerabeen edo gazteen arloan, parrokiari edo pastoral barrutian egiten diren proposamenak, eta esku-hartzen daberen eragileak, paraleloan bizi dira alkarregaz, osoko pastoraltzaren egitea gaitza dalarik.

➤ **Zatiketa hau gainditzen eta fede sarbiderako ibilpide jarraitua egituratzeko bidean aurrera egiten lagunduko duan proposamena eskaini gura dogu.**

- **Sakramentuek “baldintzatutako” Kristau Sarbideko prozesua eta Familia Pastoraltzaren**

KSko prozesuak, eta familia pastoraltzaren proposamenak, askotan sakramentuak hartu aurreko prestaketara murriztu izan dira. Horren adibide, sarritan familia pastoraltzaren bateo-aurreko edo ezkontza-aurreko pastoraltzat jotzen dala. Holan, KSak bere sena galdu egin dau eta ez da izaten fede esperientziarako eta eleiz bizitzarako sarbide izaten.

➤ **Fede esperientziarako sarbidea eta personarentzako osoko akonpainamentua ahalbideratuko duan proposamena eskaini gura dogu.**

- **Ume, nerabe eta gazteengan arreta jartzen duan eta helduak eta familiak ahazten dituan Kristau Sarbidea**

KSko prozesu gehienak umei, nerabeei eta gazteei zuzentzen jakez eta helduak eta familiak ez dira kontuan hartzen. Segurutzat jotzen da fede esperientzia eurentzat edo seme-alabentzat sakramentuen bat eskatzera kristau alkartera hurreratzen diren helduengan.

Umeen arloan diharduen KSko eragileek askotan sentitu izan dabe beharrezkoa dala aitak eta amak euren seme-alaben prozesuan txertatzea, eurok fedearen transmisioaren eragile nagusiak dirala – eta ez adiera kronologikoan bakarrik- uste dabelako. Horregaitik, kasu askotan, hainbat bidetatik saiatu izan dira gurasoek esku-hartu dairen, oso gaitza dala nabarmenduz.

Fedearen zabalkundean familiaren esku-hartzea eta ardurakidetasuna bilatzearen eraginez, pastoral jardueraren ikuspuntua zabaldu egin da, eta ume, nerabe eta gazteei begiratzeaz gainera, aita/amei be begiratzen deute, euren esku bitartekoak jarteko, parrokiako edo pastoral barrutiko pastoral lana familian osatu dairen.

Beste urrats bat emon beharra dago, familiako helduei euren fede esperientzian aurrera egiten eta sakontzen lagunduko deuten pastoral proposamenak eginez, beti be, fedeagazko eta Eleizagazko hurbiltasun edo urruntasunari jagokonez, bakoitzaren egoera kontuan hartuz.

➤ **Familia osoari begiratuko deuten eta kide bakoitzaren egoerari egokituta dagozan sarbiderako edo “bigarren” sarbiderako ibilpideak eskainiko dituan proposamena aurkeztu gura dogu.**

- **Familiaren, kristau alkartearen eta eskolaren arteko sinergiaz baliatzen ez dan hezkuntza pastoralgintza**

Emon izan dira aurrera pausuak ikastetxeen eta parrokiaren edo pastoral barrutietako pastoraltzaren arteko koordinazioan. Ezinbestekoa da dalako pausu horreek orokortzea eta finkatzea. Hala eta guztiz be, hartu-emonak beti dira aldebikoak: familia-ikastetxea, familia-parrokia edo eskola-parrokia. Gaitza izaten da hiru aldeak barne hartzen dituan hartu-emonak lortzea.

Beste alde batetik, hainbat familiak hezkuntza egitasmoaren kalidadeagaitik –eta ez hainbeste bere idearioagaitik- bialtzen ditu seme-alabak eskola katolikura. Ikastetxeetako pastoraltza ikasleentzat izaten da bakarrik.

- **Familien, ikastetxeen eta parrokia edo PBen ahaleginak batuko dituan, paraleloan doazan edo errepikatzen diran ibilpideak saihestuko dituan eta aitak eta amak heziketan eta pastoral arloko ekimenetan esku-hartzera bultzatuko dituan proposamena eskaini gura dogu.**

### 3.2. LITURGIA

#### Abiapuntua

- **Ospakizun desitxuratuak Kristau Sarbideko prozesuetan**

Fedearen ospakizun alderdia desitxuratuta geratzen da alkarren artean banandutako aldiak dituan KSKo prozesuan. Kasu askotan, erritua azaltzeko katekesiren bat emoten da bakarrik edo, kasu gitxi batzutan, Bateoaren, Lehenengo Jaunartzearen edo Sendotzaren ospakizunaren entseguren bat egiten da. Desitxuratze honen ondorioak nabarmenak dira:

- Fedearen ospakizunari jagokonez, ez dago sarbideko elementurik esperientziari begira. Askok jota, leku batzuetan azalpen teoriko batzuk emoten dira eta ez dira nahiko fedearen ospakizun alderdia KSKo une desbardinetan txertatzeko.
- Liturgia ez da kristau espiritualtasunaren *gailur eta iturri*<sup>11</sup> izatera iristen, ospakizunaren alderdi horretan batzen diran hitzen, keinuen eta sinboloen multzoari jagokonez gabezia nabarmena dalako.
- **Kristau Sarbideko prozesuetan fedearen ospakizun alderdiaren urritasun hori gainditzeko lagungarri izango dan proposamena eskaini gura dogu.**

- **Sakramentuek “baldintzatutako” Kristau Sarbideko prozesua eta Familia Pastoraltza**

Hainbat pastoral errealidadetan ikusi daitekenez, familia pastoraltza deitutakoa bateo-aurreko pastoraltzagaz edo, jagokonean, ezkontza-aurreko pastoraltzagaz bat dator. Gainera, eskuragarri izaten diran pastoral baliabideen arabera, berez prozesu ez ezik, pastoral arretarako unean uneko eskaintza diran proposamenak eskaintzen dira.

- **Fedearen alderdi ospakizuna, familiako persona-kidearen osoko akonpainamentuaren diseinuan txertatu gura dogu.**

- **Oraindik beren-beregi familiaren meza ez den meza**

Urteotan ahalegin handia egin izan da umeen katekesia domekako ospakizunagaz lotzeko. Halanda be, bai emoten jakon izenagaitik eta bai ospatzeko eragaitik be, aldaketa txikia izan da: umeEN meza zan lehen, eta umeAKAZ ospatzen dan meza da orain, zerumugan, FAMILIA KUTSUA dauan alkartearen Meza domekero ospatzea dagoalarik.

- **Bultzatu gura dogun ospakizun ereduan, hartzaile eta eragile autortutako familiak beretzat beren-beregi egina sentitu behar dau domeka jakitun eta gogotsu ospatzeko deialdia.**

---

<sup>11</sup> SC eta LG 11.

### 3.3. KARIDADE ETA ZUZENTASUNA

#### Abiapuntua

- **Familia ez da senidetasun, alkartasun eta zerbitzuzko errealidade lez, barri onaren poztasunaren zabaltzaile lez ikustera emoten**

Familia, bere sendotasun eta ahultasunakaz, *maitasun eta alkartasunezko alkartea da, nahitaezkoa, bere kideen eta gizartearen garapen eta ongizaterako funtsezkoak diran balio kultural, etiko, sozial, espiritual eta erlijiosoen zabalkunderako*<sup>12</sup>. Familia da, beraz, lehenengo eskola bere kide guztientzat: maitasunaren eskola da, alkarbizitzarena, fedearena, bizikidetasunarena, senidetasunarena, zerbitzuarena, lan eta konpromisoarena eta baita gizarte eta politika bizitzan parte hartzeko argibideak emoten deuskuzana be.

Alkartasunean heztea, gizatasunean heztea da, Jaungoikoaren erreinua zerumugan dogula, gizarte bardinago, gizatiarrago eta anaikorrakoranzko bidean aurrera egin daigun. Maitasunean oinarritzen den familiaren ondorena da. Horrela, *familia ekintza pastoralaren egilea da, Ebanjelioa beren beregi iragarritz eta era askotako testigantza eskeiniz. Honen barruan sartzen dira batz beste pobreenganako solidaritza, pertsonen bereiztasunen aurrean zabalik egotea, kreazioa zaintzea, beste familienganako eta batez ere familia behartsuenganako alkartasun moralak eta materialak, guztien ona bilatzearen aldeko jarrera, injustiziazko egitura sozialak eraldatzea familia bizi dan lurraldetik hasita, eta gorputz eta arimako errukizko egintzak praktikatzeko*<sup>13</sup>.

Baina errealidade hau ez da behar dan beste agertzen pastoralgintzan. Azaldu dogun familiako konpromiso hori ez da egokitasunez ez laguntzen ezta ospatzen be. Are gehiago, bigarren mailako konpromisoa emoten dau, eta, berez, horixe da laikoen berariazko bokazinoa gauzatzeko leku nagusia. Askotan, familiek aholkuak, tresnak eta proposamenak eskatzen dabez txertatuta dagozan inguruaren aldeko alkartasunean eta konpromisoan hezitzaile izateko.

- **Familia senidetasun eta alkartasunaren eragile eta Barri Onaren poztasunaren zabaltzaile lez agertzera emongo daben eta familiei alkartasunean eta konpromisoan hezitzaile izateko eta gizarte eragile lez daben egitekoa sendotzeko tresnak emongo deusiezan proposamenak eskaini gura doguz.**

- **Fedearen alderdi batzuk, esate baterako, eraldatzaile izatea, karidade eta zuzentasunaren aldeko konpromisoa garatzea, behartsuen Jaungoikoagaz bat egitea suspertzen ez dabezan prozesuak familiei zuzenduta.**

Katekumenotzako prozesuen helburuetako bat, edozein adinetan, karidadea gauzatu izanaren bizipena da, senidetasuna, alkarre bizitza eta salbamenaren historiako partaide izatearen sena antzemanen eta nork bere eginez<sup>14</sup>.

Karidadez edo maitasunez jokatzeko hori Sendotzaren sakramentuaren ostean burutuko da Ebanjelioa oinarritzat hartu eta errealidadearen irakurketa sinistedun, kritiko eta eraikitzailea egiteko eta Jaungoikoaren Erreinuaren aldeko konpromisoa hartzeko gaitasunean eta baita, errealidadearen eraldaketan esku-hartuz, karidade eta zuzentasunaren alde konprometitzeko gaitasunean be<sup>15</sup>.

<sup>12</sup> Eleizearen Doktrina Sozialaren laburbilduma 238.

<sup>13</sup> *Amoris laetitia* 290.

<sup>14</sup> Ik KSD 73.

<sup>15</sup> Ik KSD 158.

Halanda be, hainbat laguntza-prozesuk eta pastoral proposamenek alderdi hau ez dau egoki garatzen, ez dau errealidadearen azterketa egokirik egiten eta ez dau tresna egokirik eskaintzen irakurketa sinisteduna eginez fedetik eratorritako karidade eta zuzentasunaren aldeko konpromisora bideratzeko. Guzti honek ondorio batzuk dakar:

- Sufrimentuaren eremutik aldendutako fede esperientziak
- Bizitzagaz buztartu bako fede esperientziak
- Kristau izaterik banandutako konpromisoak, berariazko nortasun barik
- Errealidadearen kontzientzia kritiko bako konpromisoak
- **Fede sarbiderako prozesuetan sufrimentuaren eremutik Jesusen Jaungoikoagaz bat egitea eragingo daben proposamenak eskaini gura doguz, behartsuen aldeko aukera argiaren lekuko izango dan zerbitzu eta konpromisozko bizitzara zuzentzeko bakarka eta familian.**
- **Sufrimentuzko eremuak urritasunetatik ikusita eta ez euren ahalmenetatik; ondorioz, behartsuak ez dira erreferentzia ebanjelizazinoan.**

Txirotutako errealidadeek –familia da horreetako bat- presentzia urria dabe kristau alkartean ebanjelizazinoaren eragile lez. Normalean, Eleizaren gizarte-karidade jardueraren hartzaile izaten dira, eta hori, zalantza barik, positiboa izanda be, beti ez da karidadetik Jesus beren-beregi iragartera pasatzeko biderik aurkitzen.

Eleizeak gizarte eta karidadearen arloan dauan jarduerak berez hitz egiten deusku Erreinuaren Barri Onaz berariazko hizkeragaz, egintza eta lekukotasunaren hizkeragaz, pobretasuna dakarren bidebakokerien salaketaren eta konpromisoaren hizkeragaz. Hizkera hau, une egokian, eta tresna egokiakaz, Jesusen iragarpen argiagaz osotu egin daiteke eta federako atea zabaldu daike. Caritasen laguntzagaz 0-6 urtekoentzako egitasmoan parte hartzeari ekin deusken familien esperientziek, gizarteratze prozesuetan euren erlijinotasunaz edo fedeaz hitz egiteko edo boluntario lez Eleizbarrutiko jardueretan parte hartzeko eremuak zabaltzen edo aurkitzen dabezanen personenek erakusten deuskue badala arakatzeko moduko biderik.

Behartsuei, kristinau sarbidean, familia pastoraltzan, ospakizunetan, bai hartzaile lez eta bai eragile lez jagoken leku nabarmena emoteko erronka geure egin behar dogu. Horretarako, begirada berezia landu behar dogu, euren gabeziak ez ezik, euren ahalmenak antzemango dituan begirada; gainera, pastoraltzako eragileen kristinau nortasuna ezinbestekoa izango da, pedagogia egokiagaz bide honeetatik ibilteko gonbitea luzatzeko eta tresna jakin batzuk behar izango doguz, Jaungoikoa iragarreko eta sufrimentuaren erdian protagonismoa emoteko lagungarri lez.

- **Behartsuak, txirotutako familiak, Eleizearen jarduera ebanjelizatzailean jagoken lekuan jarteko urratsak emoten lagunduko deuskuen argibideak eta proposamenak eskaini gura doguz.**

### 3.4. ONDORIOAK

Aurreko azterketaren bateratasunetatik hainbat ondorio eratorren da, dalako ondorio horreek osoko pastoraltzarako erronka edo eskaera bihurtzen diralarik.

**Ebanjelizazinoaren osoko ulermena.** Ekimen ebanjelizatzaile orokorrek eta beren-beregi familia eragile lez hartzen daben ekimenek alderdi desbardinaren arteko ahalik eta orekarik handiena



erakutsi behar dabe. Zehatz-mehatz, KSko ibilpideek erabagitasun handiagoz erantsi behar dabez otoitz eta ospakizunaren arloa eta gizabanako eta gizatalde behartsu eta gitxietsien aldeko gizarte alderdia eta konpromisoa. Hainbat agiritan jasoten da hori, baina benetan ez da egokitasunez gauzatzen.

**Mailaz mailako ibilpideak fedearen sarbidean eta heltze prozesuan.** Sarbidea eta fedearen hazkundea hainbat aldi dituan ibilpidearen bitartez garatzen dira. Gaur egungo pastoral jarduerak badau erronka garrantzitsu bat: aldiak jarraitutasunez, ez zatika, banatuta, aurkeztea eta garatzea. Familia eragiletzat hartuz, mailaz mailako eta taldean egindako aurrerapena proposatzen da, ibilpide orokor baten barruan.

**Arreta helduei eta familiei eta fede helduaren sustapena.** KSko ibilpideek bizitzako lehenengo aldietan jarri izan dabe arreta gehien bat. Azken urteetan, helduei fedea proposatzea eta fedean lagun egitea beharrezkotzat jo izan da. Familia eragile ebanjelizatzailetzat hartzeko apustuak sendotu egiten dau helduengan arreta jarteko aukerea. Aldi berean, aurreko ondorioak kontuan hartuta, fede heldua daben, Eleizearen misinoan ardurakide diran persona, familia eta alkarteak lortzean datza helburua.

**Nahitaezkoa da laguntasun egokia.** Nabarmentzen ari garanez, familia pastoraltzako erreferentziatzko nukleotzat eta eragiletzat jotzen bada eta, gainera, osoko prozesuaren barruan hainbat ibilpide kontuan hartzen bada, bistakoa da nahitaezkoa dana laguntasuna. Hau kristau alkarteen eta eleizbarrutiko zerbitzuen funtsezko jarrera eta jarduera bihurtzen da.

#### **4. JARDUNBIDEAK OSOKO PASTORALTZARAKO**

1. Alkarteetan harrera bakar eta osokoa eskaini, familietan topaketa eta entzutea ekarriko daben ahalmenak eta beharrianak antzeman ahal izateko.
2. KSko eta familia pastoraltzako eragile guztien eta arlo desbardinaren arteko baterako lana eragin eta bultzatu, KSko funtsezko gai guztiak lantzeko: katekesia, hitza eta otoitza, alkarte bizitza, karidadea, ospakizuna, bihotz-barritzea.
3. Fedearen gizarte alderdia sakramentuen prestaketarako eta KSko eragileen heziketarako topaguneetan landu.
4. Familia eukaristia alkarteko benetako meza *nagusi* bihurtu, bertan oinarritzko hiru pastoral arloak (iragarpena, karidadea eta liturgia) agertzeraz emonez. Ospakizun hori, gainera, dalako arlo horreetako persona edo talde arduradunen baterako lan eta prestaketaren emaitza izango da.
5. Ikastetxeetan, familia hartzaitzat izango dauan pastoral egitasmoa eratu, pastoral jarduerarako hiru arloetako bakoitzean gitxienez proposamen bat hari eskainiz.
6. V. EEEaren garapena zehaztu, familia ebanjelizazioaren eragiletzat hartuz.
7. Pastoral jarduerarako hiru arlo nagusietako arduradun edo erreferentzia izan ekipo ministerialean.
8. Ospakizunetan eta sarbideko prozesuetan, seme-alabak harreraren dabezan, misinoetan egon izan diran edo dagozan, sufrimentuan edo karidade eta zuzentasunaren alde esperientzia sendoa daben familien lekukotasunak eskaini, familia senidetasun eta alkartasunezko eskola lez agertzeraz emoteko.

9. Pastoral Barrutietan eta ikastetxeetan, aldendutako familien hurreratzea ekarri daikien misino eremu zabalak era familia esperientziak eskaini.
10. Hasiera batean arloetako bat lehenetsiz, aurrera egin ahala gainerakoak egoki buztartuko dabean eremuak, esperientziak eta jarduerak eskaini: hezkuntza prozesuak, lan kanpamentuak, ospakizunak, otoitzak, konbibentziak.

2016ko iraila